



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Harrikada Eliza Katolikoaren buruan

Erroma, 1144ko martxoan. Luzio II.a (Gherardo Caccianemici dal Orso) aita santu izendatu zuten. Izendapenak adoretuta edo, eta, ohikoa zenez, Estatu Pontifikalen boterea handitu nahian, berehala, Roger II.a Siziliakoari aita santuaren mendeko gisa zeuzkan betebeharrak gogorarazi zizkion Luzio II.ak. Kargu hartzeari erantzunez, Siziliako agintaria armada prestatzen hasi zen eta aita santuak atzera egin zuen orduan; su-etena sinatu zuen, Siziliako erregeak jarritako baldintzak txintik atera gabe onartuta.

Hura pontifize berriaren ahuldade seinaleztat hartu zuten erromatarrek eta, artisau nahiz merkataria aberatsak buru, Luzio II.ari eskatu zioten gai zerutiarretara mugatzeko eta afera lurtarrak haien esku uzteko. Hiriko nobleziak jarrerara neutrala hartu zuen une hartan, zer gertatuko zain.

Aita santuak entzungor egin zuenean, hiritarrek Erromako Komuna osatu zuten, Erromako Errepublika zaharraren moduko gobernu bat ezartzeko ahalegintan, nobleen eta aita santuaren agintearen aurka. SPQR (*Senatus Populus Que Romanus*) antzinako leloa ere berreskuratu zuten. 56 kidez osatutako Senatua osatu zuten hiriko 14 barrutietan launa ordezkari hautatuta, eta Giordano Pierleoni buruzagi nagusi edo "patrizio" aukeratu zuten -garai hartan "kontsul"



ERROMAKO KOMUNAK SPQR LELOA BERRESKURATU ZUEN 1144AN, ERROMAKO ERREPUBLIKAREN MOLDEAK BERRESKURATU NAHIAN.

izendapenak noblezia kutsu handiegia hartua baitzuen-.

Hasieran, nobleei ondo iruditu zitzaizen aita santuari boterea kentzea, haiek ere ahalegin horretan ari baitziren aspaldian. Baina Komuna indartu ahala, Luzio II.arekin bat egin zuten beren interesak babesteko. Batzuen eta besteen aldekoak borrokan hasi ziren orduan Erromako kaleetan.

1145eko otsailean Luzio II.a buru zuen armada txiki bat errepublikazaleek gotorlekutzat hartuta zuten Kapitoliorentz abiatu zen. Baina ez zuten

Komuna menderatzea lortu eta, gainera, Dodofredo Viterboko kronikariaren arabera, aita santuari harrikada bat jo zioten buruan. Handik egun gutxira, otsailaren 15ean hil zen, kolpearen ondorioz, karguan urtebete baino gutxiago egon ondoren.

Erromako Komuna 1193an desegin zen, hiriko udal araudi zibila ezarri ondoren. Handik aurrera, hiriaren agintea ez zen zuzenean aita santuaren edo goi nobleziaren esku egongo. Praktikan, Erroma aita santuaren kontrolpean zegoen berriro. ●



Lehen paseoa espazioan

Espazioko lehen bidaia Yuri Gagarinek egin zuen 1961ean; 1969an Neil Armstrong izan zen Ilargia zapaldu zuen lehen gizakia. Bi horiek lehia espazialaren mugarri nagusiak izaki, gutxitan gogoratzen da tartean, 1965eko martxoan, Aleksei Leonov astronauta sobietarrak espazioko lehen paseoa egin zuela. Vosjod 2 ontzitik irten eta 12 minutu eta 9 se-

gundoz ibili zen espazioan, "Pauso txikia bat gizaki batentzat, jauzi ikaragarria gizadiarentzat" Armstrongen esaldia denok dugu gogoan -eta ilargiratzearen 50. urteurrena hurbildu ahala, behin eta berriro gogoraraziko digute bestela-. Baina Leonovek ere bere esaldia utzi zuen. "Hondar ale bat bezala sentitu naiz" esan zuen, onik lurreratu eta gero. ●